



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

IV. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2021eko ekainaren 9, 10 eta 11a
Gasteiz, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

**Euskara-gaztelania elebidunen
kode-alternantzia: gazteentzako
euskal irratsaio baten analisia,**

Irati Rodrigo

135-142 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iv.01.17>

ANTOLATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK:



UPV

EHU



Universidad
de Navarra



Mondragon
Unibertsitatea



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

araba álava
foru aldundia diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



UDALBILTZA

Euskara-gaztelania elebidunen kode-alternantzia: gazteentzako euskal irratsaio baten analisia

Rodrigo, I.

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
irodrigo013@ikasle.ehu.eus

Laburpena

Diskurtso berean hizkuntza bi konbinatzeari deritzo kode-alternantzia (KA), eta hizkuntzen arteko kontaktuaren ondorioz komunitate elebidunetan sortzen den fenomeno da. Lan honen helburua da *Gaztea* irratiari lau orduko irratsaio bateko corpusean oinarrituta, euskara-gaztelania hizkuntza bikotean ekoizten diren kode-alternantzia motak aztertzea. KAren erabilera ezaugarritzat duen Jon Gotzon Aldaparena (JG) esatariaren estilazio linguistikoaren zenbait alderdi deskribatu nahi dira KA adibideen maiztasun eta nolakotasunari erreparatuta. Emaitez erakutsi dute maiztasunari dagokionez esatarien artean aldea egon arren, Jon Gotzonen kasuan nabarmen gehiago ageri direla. Horrez gain, KA motei dagokionez, parte-hartzaileen artean joera desberdinak ageri dira, eta JGren mota nagusia ez da beste esatariengan nagusitzen dena, izan ere JGren kasuan esaldi artekoak nabarmentzen dira. Beraz, JGren diskurtsoan oinarritzko elementu gertatzen den KAK bereizgarri kuantitatibo zein kualitatiboak ditu.

Hitz gakoak: Kode-alternantzia, ahozko ekoizpena, euskara, gaztelania, elebitasuna

Abstract

Code-switching (CS) is a combination of two languages in the same discourse and is a phenomenon that arises in bilingual communities as a consequence of language contact. The aim of this paper is to analyze the types of code alternation that occur in the Basque-Spanish dual language, based on the corpus of a four-hour Gaztea radio programme. The aim is to describe some aspects of the linguistic stylization of the speaker Jon Gotzon Aldaparena (JG), characterized by the use of CS, taking into account the frequency and nature of the CS examples. The results show that, despite the difference in frequency between the commentators, in the case of Jon Gotzon there are notably more of them. Furthermore, with regard to the types of CS, different trends are observed among the participants, and the main type of JG is not the predominant one in other speakers, since in the case of JG the intersentential ones stand out. Therefore, the CS which is a basic element in the discourse of JGs has both quantitative and qualitative features.

Keywords: Code-switching, oral production, Basque, Spanish, bilingualism

1. Sarrera eta motibazioa

Gure gizartean, betidanik hizkuntzak eta errealtateak kontaktuan egon dira, eta gure inguruko errealtatea hizkuntza-ukipenaren fenomenoaren testuinguruan soilik uler dezakegu. Argi dago hizkuntzak gizarteko testuinguru desberdinetan duen erabilera aztertzeak informazio ugari eskaintzen duela, bai hizkuntzari berari buruz, baina baita gizarte-hizkuntza harremanari buruz. Hain zuzen ere, hizkuntza-ukipen fenomeno horren ondorio da lan honetan aztergai dugu fenomenoak: kode-alternantzia (KA, aurrerantzean). KA diskurtso berean bi hizkuntza txandakatzeari deritzo, eta ukipen-egoeran dauden bi hizkuntzen arteko kontaktuaren ondorioz sortzen da (Bullock eta Toribio, 2009).

Bullock eta Toribiok (2009) azaldu bezala, KA hizkuntzalarien artean elebitasun-gaitasunaren adierazgarritzat hartu izan bada ere, hizkuntza gainbeheraren adierazletzat hartu izan da. Hau da, hizkuntza gaitasun «txarrarekin» edo gaitasun «osoak» ez duten hiztunekin lotu ohi da, eta askotan hizkuntzaren kalitatearen «galeraren» inguruko eztabaida sortzen du (Muñoz-Barredo, 1997; Ibarra, 2011). Horren adierazle dira gizartean fenomeno horren gausatzeko identifikatzeko erabiltzen diren izendapen gutxiesleak, hala nola: *euskañol*, *spanglish*, *franglais*, *italiese*, etab. Dena dela, Poplackek (1980) adierazi zuen moduan, hizkuntza-gaitasunaren adierazgarritzat har daiteke bi hizkuntzen gramatika arauak errespetatu behar direlako, eta horrek hizkuntza bietan gaitasun eta ezagutza sakona eskatzen duelako.

Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren ondorioz, euskaldun guztiak elebidunak dira, eta KA ohiko fenomeno da gurean (Muñoz-Barredo, 1997). Euskal Herrian, oro har, KA gazteen soziolektoaren eta lagunarteko erregistroaren ezaugarritzat hartzen da (Ibarra, 2011; Lantto, 2014; Amonarriz, 2008). Era berean, Ibarra (2011) esan bezala, gazteek diskurtsoren naturaltasuna eta bat-batekotasuna bilatzen dituzte, eta horretarako gaztelaniazko kalkoak edo interferentziak txertatzen dira diskurtsuan, askotariko funtzioekin. Euskara eta gaztelaniaren arteko KA bereziki interesgarria da ikuspegi linguistikotik; izan ere, oso ezaugarri desberdinak dituzten bi hizkuntza konbinatzean KAren murriztapen gramatikalak zeintzuk diren aztertzeko aukera eskaintzen du.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Lan honen helburua euskara-gaztelania KAren erabileraren azterketan sakontzea da. Horretarako, *Gaztea* irratiko lau orduko iraupena duen Dida! Saio bateko corpus txikia osatu eta aztertu dugu, 2020ko urtarrilaren 3koa. Zehazki, KA horien nolakotasuna aztertu dugu, eta irratsaio horretan ageri diren esatarien artean alderik ote dagoen ikusi dugu. Era berean, Elorduik (2016) adierazi bezala, gazteei eta bereziki hiztun berriengana hurbiltzeko sortu den JGren estilazio linguistikoaren zenbait alderdi deskribatzea dugu xede, bereziki KAri dagokionez. Hain zuzen, hain deigarria gertatzen den bere estiloaren bereizgarritzat har daitekeen KAren nolakotasuna aztertu dugu, beste esatarien ekoizpenekin eta aurreko lanetan KA motei buruz aurkitutakoarekin alderatuta.

2.1. Kode-alternantziaren hurbilketa linguistikoak: KA motak

KA inguruko azterketan hiru hurbilketa nagusi daude (Bullock & Toribio, 2009). Batetik, egiturazko hurbilketari helduz (*structural*), KAK hizkuntza-maila guztietan ematen duen informazioa aztertzen da, hots, zein ezaugarri linguistiko dituzten KAK lexiko, fonologia edo sintaxi mailan, besteak beste. Bigarrenik, ikuspuntu psikolinguistikoak (*psycholinguistic*) KAK aztertzen ditu elebidunen ekoizpenean, ulermenean eta jabekuntzan parte hartzen duten prozesu kognitiboak hobeto ulertzeko. Azkenik, ikuspegi soziolinguistikoak (*sociolinguistic*) KAn eragina duten gizarte-alderdiak ditu ikergai, besteak beste, indarra, prestigioa, etab. Lan honetan bereziki egiturazko hurbilketari jarraitzen zaio, Dida! Saioan parte-hartzaileek ekoizten dituzten KA adibideek zer ezaugarri linguistiko dituzten aztertu baitugu, nagusiki.

KA ez da fenomeno erabat «librea», hau da, KAn ere barne arauak daude, eta beraz, murriztapen gramatikalak (Bullock eta Toribio, 2009). KAn hizkuntza txandakatzea non gertatzen den, literaturan hiru KA mota nagusi aipatu ohi dira (Poplack, 1980): esaldi artekoak (*intersentential*), esaldi barrukoak (*intrasentential*) eta etiketa modukoak (*tag-switching*).

Esaldi arteko KA, oro har, hizkuntza batean eta bestean esaldiak txertatzean datza; hau da, hizkuntza batean sortutako diskurtsuan beste hizkuntza bateko esaldiak osorik txertatzea (1). Bigarrenik, esaldi barruko KA perpaus beraren barruan hizkuntza aldatzean datza (2). Azkenik, etiketa moduko KAren barruan gehien bat interjekzio moduan erabiltzen diren hitzak edo esaldiak txertatzen dira (*o sea, pues, bueno, eske, adb.*) (3).

(1) a. Zeren... ni lehen iristen nintzen Mateko azterketara eta ikasiz ere, bua!, NO ENTIENDO NADA!¹

(2) a. Eta gelditzen zait... COMO UNA SENSACIÓN horrela, pff.

(3) a. Gainera, nire... O SEA, CON MI VECINA...

(Ibarra, 2011, 284-287. or.)

Kontuan izan behar dugu Ibarra (2011) azpimarratu bezala, etiketa moduko KAK oso ohikoak direla hiztun elebidunen artean, eta komunikazioari hasiera emateko, eteteko edo komunikazioa

¹ KA adibideak erabiltzen direnean letra larritz adieraziko dira.

mantentzeko funtzioa izan ohi dutela. Gainera, ikusi da parte-hartzaileen profil sozio-psikolinguistikoko arabera alda daitekeela KA moten agerpen maiztasuna. KA elebitasun-maila guztietan ematen bada ere, Lanttok (2012) Bilbo inguruko euskaldun zahar eta berrien talde bat aztertu zuenean ikusi zuen euskara lehen hizkuntza (H1) zutenek esaldi barruko KA adibide gehiago egiteko joera zutela; eta, berriz, euskara bigarren hizkuntza (H2) zuten hiztunek etiketa moduko KAK ekoizten zituztela gehien, hots, markatzaileak, esamoldeak eta gaztelaniazko hitz txertatzeak. Poplackek (1980) ere Puerto Ricoko eremu elebidun batean KA mota desberdinak aurkitu zituen hizkuntza-gaitasunaren arabera, partaide guztiek KA baliatzen zuten arren. Hain zuzen, hizkuntza-gaitasun handiagoa zutenengan KA adibideak tipologia desberdinekoak ziren, eta gaitasun txikiagoa zutenengan, berriz, esaldien arteko alternantzia nagusitzen zen.

2.2. *Gaztea* irratiazen hizkuntza politika

Gaztea, 2007ra arte *Euskadi Gaztea* izandakoa, euskaraz egindako eta euskal gazteei zuzendutako musika-irradi katea da, EITB komunikazio-taldea osatzen dutenetariko bat. Musika formula da irratiazen ardatz nagusia, eta gazteei zuzenduta dago bere osotasunean, bai euskararen kontsumorako, bai sustapenerako. 1990eko hamarkadan sortu zen eta hasieratik ulertu zen hizkuntza-politika normalizatzaile baten baliabide gisa (Elordui, 2019). 2000. urtetik eta bereziki azken hamar urteotan *Gaztea* irratia pasatu da euskara batu estandarra soilik erabiltzetik bestelako aldaera geografikoak eta hizkera mailak kontuan hartzen dituen eredu heteroglosiko batera (Elordui 2016).

2000. urtean *Gaztea* irratiazen hizkuntza-politika marko berri hartan sortu zen helburu parodikoa duen Jon Gotzon Aldaparenaren pertsonaia (Elordui, 2019). Jon Gotzon (JG aurrerantzean) pertsonaia Mikel Fernandez bikoizketa aktoreak karakterizatzen du eta gaur egun Dida! saioaren esatari finkoa da. Pertsonaiak umore kutsua izan ohi du, eta euskara batuaren eta gaztelaniazen arteko hizkuntza aldaketa baliatzen du. JGk Burgoseko euskaldun berri baten pertsonaia estilizatzen du, euskara ikastera euskal gizartean integratzera Euskal Herrira etorritakoa, hain zuzen. Ondorioz, esatari nagusiek, dela Edurne Garmendiak ohiko saioetan, dela Xabin Fernandezek aztergai dugun saioan, euskaldun «formalaren» papera euren gain hartu behar dute, JG pertsonaiaren «akatsak» zuzentzeko eta estandarra ez den euskara horri kontrapuntua jartzeko.

Lan honen helburua euskara-gaztelania KA motetan sakontzea eta JGren estilizio linguistikokoaren zenbait alderdi deskribatzea da, KArri erreparaturik. Honako aurreikuspen hauek ditugu. Batetik, esatari eta kolaboratzaileen artean KArri erabilera-maiztasunean aldeak agertuko dira; esatari batzuk euskarazko jardunera mugatuta egongo dira, eta beste batzuk, saioan duten pertsonaiaren arabera, hizkuntzak nahasteko askatasun handiagoa izango dute Elordui (2016) jaso bezala. Era berean, aurreikus dezakegu irratiazen parte-hartzaileen KArri maiztasunari dagokionez, JGren eta beste esatarien artean alde kuantitatiboa egongo dela, izan ere, JG da KA egiteko baimen zabala duen esatari bakarra.

Bestetik, espero dugu H1 euskara duten eta gaitasun handia duten parte-hartzaileen artean esaldi barruko KA motak nabarmentzea, eta, aldiz, euskara H2 duten parte-hartzaileengan etiketa moduko KA adibideak nagusitzea (cf. Lantto, 2012; Epelde eta Oyharçabal, 2010). Hala, JGren karakterizazioa kontuan izanda, hots, helduaroan euskara H2 moduan jaso duen Burgoseko «euskaldun» berria, etiketa moduko edota esaldi-kanpoko KA adibideak ugariagoak izatea espero dugu, eta gehien bat makulu hitzak, esaerak, eta mota horretakoak txertatzea gaztelaniaz.

3. Metodologia

Corpuserako aukeratu dugun saioa eguberrietan egindako saio berezia da, eta, hala, esatari eta kolaboratzaile ezohikoak ageri dira. Guztira, zortzi parte-hartzailearen jarduna hartu da kontuan, lau esatari nagusi eta beste lau kolaboratzaile. Hego Euskal Herriko hiztunak dira denak, gehienak komunikabideen arloan aritzen dira, eta, beraz, ondoriozta dezakegu egunerokoan euskara erabiltzen duten gaitasun handiko euskara-gaztelania elebidunak direla. Bereiziki azpimarratu beharrekoa da JG esatariaren rola; lehen aipatu bezala, Burgoseko euskaldun berri baten pertsonaia estilizatzen du,

euskara ikastera eta euskal gizartean integratzera Euskal Herrira etorritakoa. Horregatik, euskara batuaren eta gaztelaniaren arteko hizkuntza aldaketa erabiltzen du estilazazio-baliabide modura.

Aztergai dugun saioak lau ordu eta hiru minutuko iraupena du, eta lehenik eta behin saio osoaren transkripzioa egin da Transkripzioa baliatuz, KA adibideak erauzi ditugu, eta bertan bildutako adibideak aztertu, bai kuantitatiboki bai kualitatiboki. Adibide horiek honako ezaugarri hauen arabera sailkatu ditugu: alde batetik, KA adibide horien hizkuntza-bikoteari erreparatu zaio, KA zein hizkuntzen artean egiten zen zehazteko; bestetik, KA motari erreparatu diogu, honako tipologia honen arabera (Poplack, 1980; Ibarra, 2011): esaldi artekoak (4a), esaldi barrukoak (4b) eta etiketa modukoak (4c).

- (4) a. ta ni... NO TE CREO! Egitan? (K4)
- b. Joaten naiz kaka eitea ta SE ME DUERMEN LAS PIERNAS, egitan! (K4)
- c. O SEA QUE... Pffff... bota gehio! (E2)

4. Emaizak

Guztira 1067 KA adibide zenbatu ditugu transkripzio osoan, hizkuntza-bikote guztiak kontuan hartuta. Hasteko, emaitza orokorrak azalduko ditugu KA motei erreparatuta, bai hizkuntza-bikoteari eta bai KA tipologiai dagokionez, eta ondoren parte-hartzaileen arteko alderaketari helduko diogu.

4.1. KA mota nagusiak

KA gertatzen denean erabiltzen den hizkuntza-bikoteaz ari garela, 1. taulan ikus daitekeen moduan, KA gehienak euskara-gaztelaniari (5a) dagozkio (% 93,3), baina badira beste hizkuntza konbinazio batzuk ere: euskara-ingelesa (5b) eta euskara-frantsesa (5c).

- (5) a. Eta COGES EL OTRO PAQUETE ta egiten duzu gauza bera. (E2)
- b. YA, gera BAD INFLUENCER... (K4)
- c. L'AMOUR TOUJOURS! Tuyur ez, eh, TOUJOURS! (E2)

1. taula. EU/EN/FR hizkuntza-bikoteen KA agerpen-maiztasuna.


Partaidea	Euskara-gaztelania	Ingelesa-euskara	Frantsesa-euskara	Guztira
E1	215 (% 87)	29 (% 11,7)	3 (% 1,3)	247
E2	555 (% 96,2)	18 (% 3,1)	4 (% 0,7)	577
E3	75 (% 92,6)	5 (% 6,2)	1 (% 1,2)	81
E4	74 (% 98,7)	1 (% 1,3)	0	75
K1	0	0	0	0
K2	17 (% 100)	0	0	17
K3	24 (% 92,3)	2 (% 7,7)	0	26
K4	35 (% 79,5)	9 (% 20,5)	0	44
GUZTIRA	995 (% 93,3)	64 (% 6)	8 (% 0,7)	1067

Kontuan izan behar dugu esatarien eta kolaboratzaileen hitz-hartzeen iraupena ez dela berdina, eta, gainera, talde bakoitzaren artean hitz-hartzeen arteko aldea dagoela, horregatik, aldeak ageri dira parte-hartzaileen artean hizkuntza-bikote desberdinen erabileran (1. taula).

Bigarren emaitza orokorra euskara-gaztelania KA tipologiaren banaketari dagokio; hau da, esaldi artekoak, esaldi barrukoak eta etiketa modukoak. 1. irudian ikus daiteke esaldi barruko KAk (6a) direla nagusi, corpus guztiaren % 38,3 (381) mota horretakoa baita, hain zuzen. Bigarren postuan etiketa motakoak (6b) ageri dira, % 35 (348). Azkenik, esaldi arteko motakoak (6c), % 26,7 (266 adibide). Hala ere, parte-hartzaileen artean aldea dago, hurrengo azpiatalean ikusiko dugun bezala.

- (6) a. Nik ikusten badut SI ESTÁ ECHANDO UN CIGARRO FUERA, PUES NO EVITO (E2)
- b. PUES hori gertatu da...
- c. Hori da, bai! ESTOY CANSADA!

1. irudia. KA mota bakoitzaren agerpen-maiztasuna (ES-EU)



4.2. Parte-hartzaileen arteko alderaketa

Parte-hartzaile guztien artean 995 euskara-gaztelania KA adibide ekoitzi dituzte, baina 2. taulan ikus daitekeenez euren banaketa oso heterogeneoa da.

2. taula. KA kopurua partaideka (ES-EU).


Partaideak	GUZTIRA	
E1	215 (% 21,6)	919 (% 92,3)
E2	555 (% 55,8)	
E3	75 (% 7,6)	
E4	74 (% 7,4)	
K1	0 (% 0)	76 (% 7,7)
K2	17 (% 1,7)	
K3	24 (% 2,4)	

K4	35 (% 3,5)	
GUZTIRA	995	

Hasteko, JG (E2) esatariaren KA kopurua deigarria gertatzen da; izan ere 555 KA adibide zenbatu ditugu, bildutako corpus erdia baino gehiago (% 55,8). Bigarren postuan E1 esataria dago; 215 KA ekoitzi ditu, hots, corpusaren % 21,6, JGren erdia. Kolaboratzaileengan ere aldeak daude, baina oro har KA kopurua nabarmen txikiagoa da esatariena baino (76, % 7,7).

Bestalde, euskaraz-gaztelania KA adibideen tipologiari dagokionez, bi joera desberdin ageri dira, 2. irudian ikus daitekeen bezala. Batetik, esatari nagusien kasuan (E1, E3, E4) etiketa moduko KAK dira nagusi, eta, ondoren esaldi barrukoak (E3ren kasuan antzeko kopurua bietan), eta esaldi artekoak oso urriak dira oro har (% 7tik beherakoak beti ere). Kolaboratzaileen artean ere antzeko joera antzematen da, bereziki K2rengan. Aldiz, JGren KA adibideetan oso bestelako eredua ageri da; esaldi artekoak dira nagusi (% 43,2), ondoren esaldi barrukoak (% 37) eta, azkenik, urrien etiketa modukoak (% 19,8).

2. irudia. KA mota bakoitzaren kopurua partaide bakoitzeko (ES-EU).



Laburbilduz, pertsonaien arteko aldeak aztertu eta gero, hainbat ezaugarri nabarmendu dira. Alde batetik, hizkuntza pare desberdinen arteko KA adibideak aurkitu ditugun arren, euskara-gaztelania pare nagusitzen da oro har partaide guztien kasuan, eta osotara KA adibideetan gehien ageri dena izan da (% 93,3). Bestetik, KA ekoizterako orduan parte-hartzaileen profilaren arabera alde nabarmenak aurkitu ditugu bai kuantitatiboki bai kualitatiboki. Bereziki azpimarragarria da JGren (E2) kasua, izan ere, gehien bat esaldi arteko (% 43,2) KA motak ekoizten ditu, hain zuzen beste parte-hartzaileengan urrien diren KA motak.

Gainera, parte-hartzaileen arteko alderaketari erreparatuz, esatari eta kolaboratzaileen artean KAreko ekoizpenean alde kuantitatibo eta kualitatibo nabarmenak ageri direla ikusi dugu. Oro har, bi emaitza nagusi ageri dira. Alde batetik, esatari nagusien taldean ekoizten den KA kopurua handiagoa da (% 92,3) kolaboratzaileen taldearekin alderatuta (% 7,7). Bestetik, E1, E3, E4 eta K2ren kasuan gehienbat etiketa modukoak nabarmendu dira (eta baita esaldi barrukoak ere). E2ren kasua, gorago aztertu bezala, kasu berezia izan da pertsonaiaren estilazio parodikoaren eraginez, eta esaldi arteko KAK ekoitzi ditu gehien bat.

5. Eztabaida eta ondorioak

Oro har, gazteentzako Dida! irratsaioko corpusaren azterketak agerian utzi du KA adibide ugari ekoizten direla lau orduko iraupena duen saio batean, eta parte-hartzaileen artean aldeak egon arren (JGren kasua da nabarmenena), esatari eta kolaboratzaile gehienek ekoizten dutela adibideren bat edo beste. Emaizta horrek berresten du Elorduiren (2016) ondorioa, hots, *Gaztea* irratiak azken urteotan euskara batu estandarra soilik erabiltzetik bestelako aldaera geografikoak eta hizkera mailak kontuan hartzen dituen eredu heteroglosiko baten aldeko apustua egin duela.

Gainera, lehen aipatu bezala, gazteei zuzendutako irratsaioa izanik, eta gure corpusean ageri diren KA adibideak beste ebidentzia bat gehiago dira KA gazteen erregistro informalean ohikoa dela adierazteko, eta naturaltasuna eta bat-batekotasunaren adierazletzat har daitekeen ideiarako (Amonarriz, 2008; Ibarra, 2011; Lantto 2012, 2014). Hizkuntza-bikoteei dagokionez, euskara-gaztelania alternantzia ohikoa bada ere, beste hizkuntzak ere nahasten direla ikusi dugu (cf. Amonarriz, 2008).

Bestalde, KAren analisisan oinarrituta esan daiteke JG pertsonaiaren estilizio parodikoaren barruan kokatzen den KA deigarria dela bi ikuspuntutik. Alde batetik, kuantitatiboki, saioan ekoizten diren KA adibideen erdia baino gehiago (% 55,8 zehazki) berak ekoizten ditu, hots, nabarmena da oso maiz darabilen baliabidea dela. Halaz, emaitza horiek bat egiten dute Elordui (2016) esandakoarekin, nolabait esan JGren estilizio parodikoak KA gehiago egiteko lizentzia handiagoa eskaintzen dio. Esatarien erregistroa, ordea, zainduagoa da, eta KA egiteko lizentzia gutxiago dute, gure corpusean ikus daitekeen bezala. Emaizta hori bat dator gure lehen aurreikuspenarekin, hots, irratsaioko parte-hartzaileen KAn maiztasunari dagokionez, JGren eta beste esatarien artean alde kuantitatiboa egongo zela.

Bestetik, JGk ekoizten dituen KA moten artean esaldi artekoak dira nagusi (% 43,2), eta etiketa modukoak maiztasun txikiena duten KAk dira (% 19,8). Bere pertsonaiak «euskaldun berri» baten rola duela aintzat hartuta, etiketa modukoak nagusitzea aurreikus zitekeen (Lantto, 2012), eta ez da hala izan. Ildo horretan, JG pertsonaiaren emaitzak, tipologiari dagokionez, ez datoz bat literaturan euskara H2 duten hiztunengan lortutako emaitzekin (etiketa modukoak nagusi), baina ezta euskara H1 dutenen emaitzekin ere, azkeneko talde honetan esaldi barrukoak nagusitzen baitira (Lantto, 2012; Epelde & Oyharçabal, 2010). Hortaz, baliteke, JGren jardunaren «berezitasuna» ere hortik etortzea, hots, bere jardunean maizen ageri diren KA motak ez izatea ohikoenak euskara-gaztelania hiztunengan (ez H1 ezta H2 hiztunengan).

6. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Kontuan izanik gure corpusa lau orduko grabaketa batek osatzen duela, interesgarria izango litzateke etorkizunean corpusa zabaltzea lagina handitu eta hasierako hurbilketa honi jarraipena emateko. Horrek aukera emango luke KA adibide gehiago biltzeko, eta aldi berean partaide desberdinen ezaugarri sozio-psikolinguistikoek KA motan eta maiztasunean zer eragin duen aztertzeko.

7. Erreferentziak

Amonarriz, K. (2008). Gazte hizkerak-hizkera gazteak. *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 68, 167-183.

Bullock, B. E. & Toribio, A. J. (2009). Themes in the study of code-switching. In *The Cambridge Handbook of Linguistic Code-Switching* (1.-17. or.). Cambridge University Press: Cambridge

Elordui, A. (2016). Elebakartasunetik heteroglosiara: *Gaztea* irrati, bernakulizazioa gazte-komunikabideen diseinu sozioestilistikoan. *Uztaro*, 97, 31-50.

- Elordui, A. (2019). Jon Gotzon Aldaparena, estilizazio parodikoaren bidez «benetako» euskalduntasunaren mugak hausten. In I. Epelde & O. Jauregi (arg.), *Bihotz ahots. M. L. Oñederra irakaslearen omenez* (215.-240. or.). Bilbo: EHUKo Argitalpen Zerbitzua.
- Epelde, I. & Oyharçabal, B. (2010). Perpaus barneko hizkuntza lerratzeak (HL) ekialdeko euskal elebidunetan. *ASJU*, 52, 55-64
- Ibarra, O. (2011). Sobre estrategias discursivas de los jóvenes vascohablantes: causas que motivan el cambio de código. *Oihenart*, 26, 277-298.
- Lantto, H. (2012). Gramatical code-switching patterns of early and late Basque-Spanish bilinguals. *Sociolinguistic Studies*, 6.1, 21-43.
- Lantto, H. (2014). Code-switching, swearing and slang: The colloquial register of Basque in Greater Bilbao. *International Journal of Bilingualism*, 18(6), 633-648
- Muñoa-Barredo, I. (1997). Pragmatic functions of code-switching among Basque-Spanish bilinguals. *Actas do I Simposio Internacional sobre o Bilingüismo*. (528.-541. or.). Universidade de Vigo: Servizo de Publicacións Vigo.
- Poplack, S. (1980). Sometimes I'll start a sentence in English y termino en español: toward a typology of code-switching. *Linguistics*, 8, 581-618.

8. Eskerrak eta oharrak

Eskerrak eman nahi dizkiot Amaia Munarriz-Ibarrola irakasleari (UPV/EHU, ELEBILAB) lan hau zuzentzeagatik. Lan honek Eusko Jaurlaritzaren (IT-983-16) diru-laguntza izan du.